

## Banatu dira EikenTalent 2014 lehiaketaren sariak

2014/06/05

Atzo, ekainak 4, banatu ziren Mondragon Unibertsitateko Aretxabaletako campusean, EikenTalent 2014 ikus-entzunezko proiektu berrien lehiaketaren sariak. Lehiaketaren edizio honetan, Lohitzune Amatriak eta Paula Besgak eta Leire Berturenak, azken bi horiek Mondragon Unibertsitateko ikasle ohiak, jaso zituzten sari nagusiak.

Eiken Euskadiko ikus-entzunezko klusterrak antolatzen ditu EikenTalent sariak eta zazpigarren edizio honetara, EAĒko unibertsitateko ikasleek egindako 38 proiektu berritzaile aurkeztu dira. Horietatik guztietatik, 12 egitasmo iritsi ziren atzoko finalera.

Makina bat sari banatu ziren atzoko ekitaldian (sarrerak, ekitaldietan parte hartzeko gonbitak...), baina, bi izan ziren emandako sari nagusiak:

- **EITB saria:** Lohitzune Amatria. Proiektua: *Berrikarin*. Saio hori umeei zuzendutako informatibo laburra da. Marrazkien bidez azalduko zaizkie gaztetxoei eguneko albiste nagusiak.
- **EikenTalent saria:** Paula Besga eta Leire Berturen. Mondragon Unibertsitateko Ikus-entzunezko Komunikazioko ikasle ohiak *Kanpotarrak* izeneko proiektua aurkeztu zuten. *Reality* bat da *Kanpotarrak*. Proiektu horretan, atzeritar talde bat herri batera iristen da eta, bertan, lagunak nola egiten duten ikusten da.

EikenTalent 2014 sari banaketa: [argazki galeria](#).



EikenTalent 2014ko irabazleak eta babesleak.